

## Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Euskal Herria

### Definizioa

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, herritarri euskarari buruzko zenbait iritzi galdetu, eta erantzunak kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren tipologia bat eratu da.

Honako hauek dira jarreraren tipologia osatzeko galdetu diren iritziak:

- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino.
- Administrazio Publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea.
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea.
- Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiak askoz programa gehiago izan beharko litzakete euskaraz.

Inkesta soziolinguistikoko lau iritzi horiei buruzko kategoriak konbinatuz eratu da jarreraren tipologia. Kontuan izan behar da hiru iritzi euskararen aldekoak direla, eta badela bat kontrakoa dena.

### Hedadura

Euskal Herria

### Aldagaiak eta kategoriak

- **Eremu geografikoa:** Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea/Zuberoa
- **Jarreraren araberako tipologia::**
  - Oso aldekoa.
  - Aldekoa
  - Ez alde ez aurka
  - Aurkakoa.
  - Oso aurkakoa.

### Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, adinaren arabera

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, sexuaren arabera

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren arabera

### Iturria

Inkesta Soziolinguistikoa

#### Iturriaren ezaugarriak

Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute.

Inkesta Soziolinguistikoa lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.

Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.

<b>Iturriaren arduraduna</b>	Inkesta Soziolinguistikoaren arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuako Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.
<b>Lehenengo datua eta maiztasuna</b>	<b>Lehenengo datua:</b> Lehen Inkesta Soziolinguistikoa 1991n egin zen. <b>Maiztasuna:</b> Bost urterik behin egin da.
<b>Lagina eta akats-tartea</b>	<p>Azken datu-bilketa 2016an egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.</p> <p>Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzan aukeraketa geruzatua egin da, gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera.</p> <p>Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.</p> <p>2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoa 8.200 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 iparraldean eta 2.000 Nafarroan.</p> <p>Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 1,4koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako erkidegoko laginketa-errorea honakoa da: EAEn <math>\pm</math> % 1,9koa, Nafarroan <math>\pm</math> % 2,9koa eta Iparraldean <math>\pm</math> % 2,3koa.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban <math>\pm</math> % 4koa, Bizkaian <math>\pm</math> % 2,8koa eta Gipuzkoan <math>\pm</math> % 3koa.</p> <p>Nafarroako lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 2,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: Eremu euskaldunetan <math>\pm</math> % 4,3koa, Eremu mistoan <math>\pm</math> % 3,9koa eta Eremu ez euskaldunetan <math>\pm</math> % 5,5koa.</p> <p>Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen <math>\pm</math> % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) <math>\pm</math> % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan <math>\pm</math> % 4,5koa.</p>
<b>Informazio osagarria</b>	
<b>Argitalpenak eta txostenak</b>	<a href="http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/">http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/</a> <a href="http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak">http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</a>
<b>Galdesorta(k)</b>	<a href="http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html">http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html</a>